


KOENIG, LUBAC, RATZINGER

1960-1970 garaian estudiantean izan gizonok, naiko arto bizi izan genduan amarraldi ura. Urte areitako gizonak ta gertaerak aipatzekoak dira izan be. Orta or, esaterako: Juan XXIII, J. Kennedy, N. Khruschev, Beatles edo 68'ko maiatza. Ta kristau katolikuo bizi ro poztu ginduzan gertaera, dudarik gabe, Vatikanon II Kontzilioa izan zan.

Eleiz Batzar Nagusi ortan parte artu ebezan gotzain ta teologu famatu en izenak, Atletiren jokalarien izenak baino, buruz obeto genkiazan. Ordu tik ona urte mordoxka igaro arren -20 urte Kontzilioa amaitu zala- ez ditugu oraindik aaztu Lienart, Döpfner, Frings, Suenens, Lercaro, Ottaviani, Alfrink edo Koenig gotzaien parte artzeak. Ezta, Kontzilioaren barnean zer ikusi aundia euki eban teologu batzuen izenak be. Nok ez ditu euron artean gogoratzen: K. Rahner, J. Danielou, I.



Franz Koenig

Congar, E. Schillebeecks, H. Lubac edo J. Ratzinger? Batzuk il dira ta besteak tinko ari dira lanean. Ta zergaitik ez ete eban parte artu Kontzilioan H.U. von Balthasar famatuak? Auxe bai badala arritzekoa!



Ratzinger

20 urte Vatikanon II amaitu zala-ta, izan dira ta badira oraindion makina bat jardun-aldi, artikulua ta liburua. Aipagarriena, Aita Santuaren babespean, Erroman, pasau dan abenduan, ospatu zan Sinodoa ta zer esanik ez, bertan Bruselasko Danneels kardinalak izan eban txostena. Kontzilioaren 20 urteoi buruz, KARMEL aldizkari onek be, artikulua eder bat eskeiñi euskun, aurreko alean, oraingoan, ainbat ta ainbat liburua ta artikuluen artean, iru liburua nai ditut aipatu: «Rapporto sulla fede, Chiesa dove vai? ta Entretien autour de Vatican II» Irurok erderatuta dagoz. Irurok alkarizketaldi gisan egiñak. Lenengoa Vittorio Messori kardinali egindakoa; bigarrenak, Gianni Licherik Vienako Koenig kardinalaz eukitako alkar-izketa dakar ta irugarrena, ostera, Lubac kardinal frantsesaren erantzunekin osotuta datorkigu. Galderak Angelo Scolarenak.


A zelako irukotea! Irurok Kontzilioaren testigu ta protagonista! Ta zorionez, Pazko aste onetan, euron azken liburuxkoak irakurtzeko astia euki izan dot. Oso aberasgarriak izan yataz. Ez dakit nondik atara izan dabèzan, ainbeste istillu ta izkanbilla. Irurok alkar-erasoan ziarduela, ageri izan da izparringi ta aldizkarietan. Ezta txantxetako komunikabideen azpijoku ta naste-borrastea!

Niretzat iruron eritxiak alkar osotu ta azterketa askotan batera datoz. Irurok Kontzilioaren alde datoz:

«Ezin leike aurrera jo, Vatikano II existidu ez balitz lez». (Ratzinger) «Kontzilioak izugarriko probetxuak ekarri izan ditu ondo erabili dan lekuetan» (Lubac) «Vaticano II Kontzilioa gabe Eleizaren egoera tamalgarria izango zan. Bai Kontzilioa ta bai Karol Wotyla Aita Santu izateko autatzea, Espiritu Santuaren eragin nabari-nabariak izan dira (Koenig).

Baita be irurok ados datoz Kontzilioaren ondorioak aztertzerakoan. Baliteke puntu onetan, Ratzingerren eritxiak mingarrienak izatea, batez be mendebaldeko eleiz-lurretan. Kontzilioaren frutu ederrenak mendebalean baiño Ego-Amerikan, Asian ta batez be Afrikan artzen dirala diñoskue irurok. An ta emen izan doguzan ondorio itsusi ta zatarren errurik ez dautsoe Kontzilioari jezarten. Kontzilioa, Eleizaren historian, argi disdiratsu izan dadin, santuen bearizana sentitzen dabe:

«Barrizailleen premiña baiño santuen premiña geiago dauko Eleizak. Santutasuna bear dau Eleizak, ez management» (Ratzinger) «Uste osoa daukat Eleizak, Espiritu Santuaren eraginēz, zintzo jarraituko dautsola Jaunari, santu barriak etengabe erneraziko diranez» (Lubac) «Gaur daukagun problema inportantena galdera oneri erantzutea da: Nor da Jesukristo?» (Koenig)



Rahner eta Lubac

Irurok Eleizaren etorkizunari begira sinismen sendoz ta itxaropen adoretsuz datorkiguz. Mendebaleko Eleizari buruz auxe berau doñosku Ratzinger kardinalak:

«Zorionez mendebaleko eleizetan be, itxaropen aundiko mogimentuak sortzen ari dira, esaterako: karismatikoez, neokatekumenalak, Focolariak ta abar. Geroago ta gazte geiago ikusten ditut kementsu kristau sinismena bizi ta misiolari izateko gertu. Arritzekoa auxe bai badala: mogimentu oneik ez

dirala sortu pastorgintzetako edo antzeko bulegoetan. Espirituaren eragiña gure egitarauak baino indartsuagoa dala ikusten da. Leñu barri bat erntzen ari ete dan, oso itxaropentsu nago».

Etorkizunari begira, baikor agertzen jaku Franz Koenig:

«Kontzilioak frutu eder asko emon izan ditu naizta batzuk emon ez dituan emaitzak azpimarratu». Ta ona emen gotzain gazte bati emoten dautsozan aolkuak:

«Lenengo ta bein Kontzilioaren espirituaz ados bizitea; bestea, kristau laikoiei al dan eginbear zabalenak jezartea; irugarrena, ekumenismoari inportantzi aundia emotea ta azkenik, mogimendu karismatikoei arretazko begirunea».

Eleizaren geroari buruz, Libac kardinal pentsalariaren berbak mistiko batenak dirudi:

«Ez nau arritzen gainean daukagun gizaldi barriak. Historiari begiratuta ta gaurko egoera kontuan arturik, Eleizak une gogorrek ta latzak igaro izan bearko ditu, erasoaldiak, era danetariko krisiak ta ustegabeko aldakuntzak Eleiza beti il zorrian dirudi, barrutik ta kanpotik zapaldua baina beti ernebarritzen: inpernuko indarrak ez dabe menperatuko. Ez daukat Eleiz barri baten bear izanik, ezta teologi barri baten premiñarik be. Maite dot Eleiza, bere miseri ta argaltasunez, geure utsegite ta makaltasun guztiekin, bere biotz barnean ixiltasunez ta maitasunez bizi ditun santuekin. Maite dot Eleiza au, bertan, Gregorio Aundiak diñoanez, «unus portatur ab altero» naizta sarritan bata bestearen arerio izan. Maite dot Eleiza, bere agintariak, munduak ezagutzen ez dituen txiki ta apalen otoitzekin, lagunduta dagonez».

Ez dira txantxetakoak bere beste berba onetik be:

«Bearrezkoa da kristau fededunok geure noitasuna ausarti agertzea, ez fedebakoei erantzuteko baita bedebakoei itaunak jaurtitzeko be. Ez da naiko besteen eupadei erantzutea, norbera be errokari jeikiten saiatu bear dau bere burua. Or dabilta «judeu-kristautasun» kutsua baztertu nairik, sinisgabeko mundua bir-eraikituko. Orixe nai izan eban lortu Hitler'ek be ta orixe nai dabe lortu, beste era batera, gaurko ainbat intelektual ta politikariek. Ez teknikalariak, ez politikuek, ez zientzilariek ezin daike gizonaren misterio barnea somatu».

Nire asmoa ez da izan lerro oneitan liburu orreïn laburpe-
nik egitea. Ezta euron guna azpimarratzea be. Kontzilioaren bi-
detik jarraitzeko gogoia barriztatzea izan da nire naia. Orixe sen-
tidu izan dot neure biotz barruan irukote bikain oneen jakiteaz
ta izateaz ikuturik.

A. Olea